



**Busturiko  
Udala**



# Akta

**TOKIKO GOBERNU BATZORDEA  
2013 - UZTAILA - 3**

**JUNTA DE GOBIERNO LOCAL  
3 - JULIO - 2013**

**TOKIA / LUGAR: Busturiako Udaletxea  
EGUNA / FECHA: 3/7/2013  
HASIERA / INICIO: 20:45  
AMAIERA / FINAL: 21:30**

**BERTARATUAK / ASISTENTES:  
ALKATEA/ALCALDESA  
Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda (Bildu)**

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:  
Jone Miren Arrasate Urkiaga (Bildu)  
Ziortza Bilbao Agirre (Bildu)  
Berezi Echebarría Rivas (Bildu)**

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL  
V́ctor-Martín Amparan Álvarez**

**IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria  
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera**



Busturiko  
Udala



# Akta

Busturiako Udaletxean, aipatu egun eta orduan, Alkatea Ma-haiburu eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Tokiko Go-bernu Batzordea bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian bu-rtzeko. Ebatzitakoaren fede Udaleko Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.

Alkate anderearen aginduz, zinegotzien artean behar adina denboraz banatutako gai ordenaren arabera ekin zitzaion bilerari, eta honako erabakiak hartu ziren:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indi-cados, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa y con asisten-cia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Cor-poración, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden de la Sra. Alcaldesa dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

## 1.- Aurreko saioko akta.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen 2013ko ekainaren 19ko saioko akta.

## 1.º.- Acta de la sesión anterior.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, aprobó el acta de la sesión de 19 de junio de 2013.

## 2.- “Busturiako hilerriko harrizko paretaren berreraikuntza” lanen esleipena.-

Tokiko Gobernu Batzordeari esleipenerako izapideturiko pro-zeduran aurkezturiko eskaintzen berri eman zitzaion, publi-zitate gabeko prozedura negoziatu bidez egin dena, “Bustu-riako hilerriko harrizko paretaren berreraikuntza” lanak egi-teko, ondokoak direnak:

- J. M. L. L.: 45.616,03 €
- A. B. L.: 40.738,28 €
- A. M. G.: 42.068,11 €

Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen kontratu hori A. B. L.i esleitzea, guztira 40.738,28 €an (33.668,00 €, gehi 7.070,28 €, BEZi dagokiona), obra gauza-tzeko 45 eguneko epea emanda eta Baldintza Administratibo Berezien Orrian ezarritako gainerako baldintzen mende.

## 2.º.- Adjudicación de las obras de “Reconstrucción de muro de mampostería del cementerio de Busturia”.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de las ofertas pre-sentadas en el procedimiento tramitado para la adjudica-ción, por procedimiento negociado sin publicidad, de las obras de “Reconstrucción de muro de mampostería del ce-menterio de Busturia” y que son las siguientes:

- J. M. L. L.: 45.616,03 €
- A. B. L.: 40.738,28 €
- A. M. G.: 42.068,11 €

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimi-dad, acordó adjudicar el contrato de “Reconstrucción de muro de mampostería del cementerio de Busturia” a A. B. L., por un precio total de 40.738,28 € (33.668,00 €, más 7.070,28 €, correspondientes al IVA), un plazo de ejecución de 45 días y con sujeción al resto de condiciones establecidas en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

## 3.- Mapeko pistaren birgaikuntza partziala.-

Izapideturiko espedientea eta bertan jasotako dokumentazioa ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen:

1º) “Mapeko pistaren birgaikuntza partziala” lanen kontrataziorako espedientea onartzea, publicitate gabeko prozedura negoziatu bidez: 27.328,18 €ko gastua, gehi 5.738,92 €, BEZi dagokiona, eta aipatu kontratua zuzendu beharreko Baldintza Administratibo Berezien Orria.

2º) Proiektua eta Agindu Teknikoen Baldintza Orria onartzea.

3º) Esleipen prozedurari ekitea, enpresa espezializatuak gonbidatuz.

## 3.º.- Rehabilitación parcial de la Pista de Mape.-

Visto el expediente tramitado y la documentación obrante en el mismo, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

1º) Aprobar el expediente para la contratación de las obras de “Rehabilitación parcial de la Pista de Mape”, por proce-dimiento negociado sin publicidad; un gasto de 27.328,18 €, más 5.738,92 €, correspondientes al IVA y el Pliego de Cláu-sulas Administrativas Particulares a regir en el referido con-trato.

2º) Aprobar el proyecto y el Pliego de Prescripciones Técni-cas.

3º) Disponer la apertura del procedimiento de adjudicación,



Busturiko  
Udala



# Akta

cursando invitaciones a empresas especializadas.

#### 4.- Emakida eskaera Kosta Mugapenari.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zuen eskaera bat izapidetzea Itsas-Adar eremuan kokaturiko itsas-lurreko jabari publikoaren zati bat eman dakion parke publiko bat sortzeko eta eremu horretako padura eta ingurune naturala leheneratzeko, udal arkitekto aholkulariak idatzitako txostenean jasotako ondoko jardunbideak egikaritzuz:

1. Balio anitzeko pista eta zolaturiko ibilgailuentzako sarrera gunea kendu.
2. Belar naturaleko parke publiko bat sortu, herritarrek nahi dutenean sartzeko, belar artifizialeko azalera mugatu batekin (100x70m) hainbat kirol egiteko.
3. 2.850m<sup>2</sup> padura leheneratu.
4. Aldagelen eraikina parkeko zerbitzuen eraikin izateko eraberritu.

#### 4.º.- Solicitud de concesión a la Demarcación de Costas.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó tramitar una solicitud para la concesión de una parte del dominio público marítimo-terrestre situado en la zona de Itsas-Adar para la creación de una zona pública de parque y la recuperación de la marisma y el entorno natural de la zona de Itsas-Adar, mediante la ejecución de las siguientes actuaciones recogidas en la documentación elaborada por el arquitecto asesor municipal:

1. Eliminación de la pista polivalente y la zona de acceso rodado pavimentado.
2. Creación de un parque público de hierba natural, de libre acceso a los ciudadanos, con una superficie limitada (100x70 m) de hierba artificial para posibilitar el uso deportivo de distintas modalidades.
3. Recuperación de 2.850 m<sup>2</sup> de marisma.
4. Reformar el edificio de vestuarios como edificio de servicios del parque.

#### 5.- Pagosarreta-Zabale bidea.-

Tokiko Gobernu Batzordeari Gaurko Abokatuak emandako txosten juridikoen berri eman zitzaion, Pagosarreta-Zabale bide publikoaren egungo egoerari eta irekitzeko eskaerei dagokienez.

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen J. R. B. C. i eskaera egitea beharrezko neurriak har ditzan bere ganadua ez dadin aipatu bidean sartu. Horren ondoren, Udalak ireki egingo du.

#### 5.º.- Camino de Pagosarreta-Zabale.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de los informes jurídicos emitidos por Gaurko Abokatuak en relación al estado actual del camino público Pagosarreta-Zabale y las peticiones para su apertura.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó requerir a J. R. B. C. para que proceda adoptar las medidas oportunas para impedir que el ganado de su propiedad invada el citado camino, tras lo cual el Ayuntamiento procederá a la apertura del mismo.

#### 6.- Udal Consulting, S.L.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Udal Consulting S. L enpresak aurkezturiko 4.200 €ko (BEZ kanpo) aurrekontua onartzea Busturiako Toki Ekintza Planaren Berrikuspen eta Eguneraketaren III. Faserako.

#### 6.º.- Presupuesto de Udal Consulting, S.L.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar el presupuesto de 4.200 € (IVA excluido) presentado por la empresa Udal Consulting S.L. para la Fase III de la Revisión y Actualización del Plan de Acción Local de Busturia

#### 7.- GR-30 mendi-ibilien ibilbidea.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Orbela enpresak "Urremendi" Landa Garapen Elkarteari proposaturiko aldaketak onartzea, "Ardo eta arrainaren ibilbidea" GR-38 bidexka luzean hainbat aldaketa egiteko, Busturian tarte hauei eragingo lieketenak:

- Forua-Altamira
- Altamira-Arriatara

#### 7.º.- Ruta de senderismo GR-38.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar las modificaciones propuestas por la empresa Orbela a la Asociación de Desarrollo Rural "Urremendi" para la realización de diversas modificaciones del sendero de gran recorrido GR-38 "Ruta del vino y el pescado", que en Busturia afectarían a los tramos:

- Forua-Altamira



Busturiko  
Udala



# Akta

- Urkiobe-Katillotxu

- Altamira-Arriatara  
- Urkiobe-Katillotxu

## 8.- Jaietako kartelen lehiaketa.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen herriko jaietako kartela aukeratzeko epaimahaia arduradunen erabakia berrestea, irabazlea J. C. I. izanda 300 €ko sariarekin.

## 8.º.- Concurso de cartel de fiestas.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó ratificar la decisión del jurado encargado de elegir el cartel anunciador de las fiestas locales, que ha designado como ganador del premio de 300 € a J. C. I.

## 9.- Busturia Txirrindulari Taldearen idazkia.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen mahai gainean uztea Busturia Txirrindulari Taldearen eskaera Euskadiko gazteen Txapelketan ekonomikoki eta materialari dagokionez laguntza jasotzeko, kirol jardueren kapituluan dagoen ahalmen ekonomikoa ezagutu arte.

## 9.º.- Escrito de la Residencia Arroategi.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó dejar sobre la mesa la solicitud del Busturia Txirrindulari Taldea para colaboración económica y material en la carrera ciclista del Campeonato de Euskadi de juveniles, hasta conocer la disponibilidad económica existente en el capítulo de actividades deportivas.

## 10.- Harri-Berriren idazkia.-

Harri-Berrik aurkezturiko idazkia ikusita, Santiago jaietan idiprobak antolatzeko laguntza eskatzeko, Tokiko gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen mahai gainean uztea jardueraren aurrekontua eta kirol jardueren kapituluan dagoen ahalmen ekonomikoa ezagutu arte.

## 10.º.- Escrito de Harri-Berri.-

Visto el escrito presentado por Harri-Berri solicitando colaboración para la organización de las pruebas de bueyes con motivo de las fiestas de Santiago, La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó dejarlo sobre la mesa hasta conocer el presupuesto de la actividad y conocer la disponibilidad económica existente en el capítulo de actividades deportivas.

## 11.- Busturia Kirol Taldearen idazkia.-

Ondoren, Busturia Kirol Taldeak aurkezturiko idazkia irakurri zen. Bertan material hornidura eskatzen da itsas-adarreko futbol-zelaia mantentzeko, hala nola lokal bat gauzak gordetzeko eta futbol-zelaia erabiltzeko kontratuaren berrikuntza. Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen:

- 1.- laz emandako laguntza bera ematea haziak eta ongarria erosteko, makineriaren alokairuari dagokiona ukatuta.
- 2.- Jakinaraztea Udalak lokal bat gaitu duela Axpe auzoko 25.ean klubaren materiala gordetzeko, baina ez haren bulegoetara, beraz, bertara eramaten den materialak udal ikuskaritza jaso beharko duela.
- 3.- Futbol-zelaia lagatzeko kontratu berri bat egitea, eta kontratu horrek lagapena prekario eran egingo dela eta klubak mantentze-lanetan lagundu behar duela jasotzea.

## 11.º.- Escrito de Busturia Kirol Taldea.-

Seguidamente se dio lectura al escrito presentado por el Busturia Kirol Taldea solicitando el suministro de material para el mantenimiento del campo de fútbol de Itsas-adar, la cesión de un local para guardar sus objetos y la renovación del contrato de utilización del campo de fútbol.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

- 1.º.- Conceder igual ayuda que la concedida el pasado año para compra de semilla y abono para el campo de fútbol, denegando la correspondiente al alquiler de maquinaria.
- 2.º.- Informarle de que el Ayuntamiento ha habilitado un local en el barrio de Axpe, 25, para el almacenamiento de materiales del club, pero no para sus oficinas, por lo que el material que se traslade al mismo deberá ser objeto de comprobación municipal.
- 3.º.- Elaborar un nuevo contrato de cesión del campo de fútbol, que deberá recoger las condiciones de que la cesión se realizará en precario y que el club deberá colaborar en el mantenimiento.



Busturiko  
Udala



# Akta

## 12.- Urdaibai Onen idazkia.-

D. Z. K.k “Urdaibai on” elkartearen izenean aurkezturiko idazkia ikusita, bilera bat eskatzeko San Pedroko kobaran sartzeko giltza eskatzeko modua eta euren jardueretako Aingerubideko udal lokala erabiltzeko aukera aztertzeko, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen kontsulta bat egitea kobara sartzea baimentzearen egokitasunaren inguruan, bertan saguzarren moduko espezie babestua bizi baita.

## 12.º.- Escrito de Urdaibai on.-

Visto el escrito presentado por D. Z. K., en representación de “Urdaibai on” solicitando la celebración de una reunión para analizar la forma de acceder a la llave de entrada a la cueva de San Pedro y la utilización del local municipal de Aingerubide para sus actividades, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó formular una consulta sobre la conveniencia de facilitar el acceso a la cueva en la que habita una colonia de una especie protegida como los murciélagos.

## 13.- J. M. N. B.aren idazkia.-

J. M. N. B.k Goikoetxerantz Harrobiko bidean kokaturiko sarrera-hesien giltza eskatzeko aurkezturiko idazkia ikusita, eta kontuan hartuta:

- 1.- Hesi horiek Leandro Gómez, S.L. enpresak, harrobia betetzeko baimenaren titularrak, jarri dituela.
- 2.- Betetze hori baimentzeko oinarri izandako proiektuan kontrol neurri gisa hesi baten ezarpena eta sarreran jagole bat egotea jaso zirela.

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen eskaera egitea Leandro Gómezi, baimenaren titularra den heinean, ezarritako hesietako bat kentzeko eta sarreran jagole bat jartzeko kontrol neurria har dezan, eta mantentzen den ateko giltzaren kopia ba emateko udal bidetik igarotzeko eskubidea bermatzeko.

## 13.º.- Escrito de J. M. N. B.-

Visto el escrito presentado por J. M. N. B. solicitando las llaves de las barreras de acceso colocadas en el camino de la Cantera a Goikoetxe y considerando:

- 1.- Que las citadas barreras han sido colocadas por la empresa Leandro Gómez, S.L. titular de la licencia de relleno de la cantera.
- 2.- Que en el proyecto en base al cual se autorizó este relleno se contemplaban como medidas de control la colocación de una barrera y la existencia de un guarda a la entrada.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó requerir a Leandro Gómez como titular de la licencia a que elimine una de las dos barreras colocadas y adopte la medida de control de la permanencia de un guarda a la entrada de la explotación y a que facilite una copia de la llave de la puerta que se mantenga para garantizar el derecho de paso por el camino municipal.

## 14.- M. I. U. I.aren idazkia seinaleei buruz.-

M. I. U. I.k aurkezturiko idazkia ikusita, San Bartolomeko errotodan “Ontxene landetxea” kartela ezartzeko baimena eskatzeko, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen baimena ematea, iradokituta errotuluak Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatuak egindako diseinuen arabera izatea.

## 14.º.- Escrito de M. I. U. I. sobre señalética.-

Visto el escrito presentado por M. I. U. I. solicitando autorización para colocar un cartel de señalización de “Casa rural Ontxene” en la rotonda de San Bartolomé, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó autorizar su colocación, sugiriéndole que los rótulos sean conforme a los diseños elaborados por el Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

## 15.- J. E. B.aren Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergaren salbuespena.-

J. E. B.k aurkezturiko idazkiaren berri emanda, non 2014. urterako eta hurrengoetarako TO-0794-L matrikula duen bere autoaren salbuespena eskatzen duen Trakzio Mekaniko Ibilgailuen Zergari dagokionez, ibilgailuak 25 urte baino gehiago dituen neurrian, eta beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu duela ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen eskaera.

## 15.º.- Exención del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica de J. E. B.-

Dada cuenta del escrito presentado por J. E. B., por el que solicita la exención, para el año 2014 y sucesivos, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, del turismo de su propiedad, matrícula TO-0794-L, por ser un vehículo de más de 25 años de antigüedad, y habiendo aportado toda la documentación requerida, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la solicitud presentada.



Busturiko  
Udala



# Akta

## 16.- C. M. G. ren Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergaren salbuespena.-

C. M. G. k aurkezturiko idazkiaren berri emanda, non 2014. urterako eta hurrengoetarako BI-6190-AV matrikula duen bere autoaren salbuespena eskatzen duen Trakzio Mekaniko Ibilgailuen Zergari dagokionez, ibilgailuak 25 urte baino gehiago dituen neurrian, eta beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu duela ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen eskaera.

## 17.- Zura ateratzeko baimena.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen zura ateratzeko baimena ematea M. B. O. O. ri (2/12 Txost.), "Iturbe" eta "Malluku" mendiei dagokiena, 10. poligonoko 61. lursaila, 15. poligonoko 174. lursaila eta 16. poligonoko 49. lursaila, Granja-San Bartolomeko eta Mallukuko bidea erabiliz eta 735,80 estereotan.

## 18.- J. S. G. en idazkia.-

J. S. G. Altamira auzoko 48. ean duen etxebizitza ondoan kiratsak daudela salatzeak aurkezturiko idazkia ikusita, eta 48A eta 47C etxebizitzetako jabeen erkidegoak Udalak joandako maiatzaren 22an adosturiko exekuzio aginduekin bat datoze ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen exekuzio agindua ematea kalteturiko saneamenduhodia konpontzeko edo ordezteko, udal arkitekto aholkulariak egindako txostenaren arabera.

Eta besterik gabe, Alkate andereak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate andereak eta egiaztatzen dudana idazkariak sinatuta.

Alkatea/La Alcaldesa,

Izp.: Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda

## 16.º.- Exención del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica de C. M. G.-

Dada cuenta del escrito presentado por C. M. G., por el que solicita la exención, para el año 2014 y sucesivos, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, del turismo de su propiedad, matrícula BI-6190-AV, por ser un vehículo de más de 25 años de antigüedad, y habiendo aportado toda la documentación requerida, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la solicitud presentada.

## 17.º.- Autorización para saca de madera.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder autorización para la saca de madera a M. B. O. O. (Exp. 2/12), correspondiente al monte "Iturbe" y "Malluku", parcela 61 del polígono 10, parcela 174 del polígono 15 y parcela 49 del polígono 16, utilizando el camino de la Granja-San Bartolomé y el de Malluku, en un número de 735,80 estéreos.

## 18.º.- Escrito de J. S. G.-

En relación al escrito presentado por J. S. G. denunciando la existencia de malos olores junto a su vivienda del barrio de Altamira, 48 y vista la conformidad dada por las comunidades de propietarios de las casas 48A y 47C a la propuesta de orden de ejecución adoptada por el Ayuntamiento el 22 de mayo pasado, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó dictar orden de ejecución para la reparación o sustitución de la tubería de saneamiento afectada, según el informe emitido por el arquitecto asesor municipal.

Y no habiendo más asuntos que tratar, la Sra. Alcaldesa dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, la Sra. Alcaldesa y el Secretario que certifico.

Idazkaria/El Secretario,

Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez